

Kepa Leturia Elorza

A maila • 3 aipamena

Kepa Leturia naiz, ormaiztegiarra. Alboko herrian, Beasainen, egiten ditut bigarren batxilergoko ikasketak, eta hurrengo urtean unibertsitatera joateko nahia daukat. Nire zaletasunen artean futbola eta mendia kokatzen ditut lehenik, eta hauen atzetik dator idazlan hau egitera bultzatu nauena, irakurtzearen bitartez beste mundu batzuk ezagutzea. Hala ere, idazlan hau ez da guztiz fikzioa, nire familian gertatutako istorio bat baizik.



LAINOA

Lierni, 1934ko uztailleko bigarren igandea

Eztitan zegoen Luisa, lan zamatsuz beteriko urte luze batez itxaron ondoren Lierniko erromeriaren eguna iritsi baitzen. Ospakizun honen etorrerarekin bat azaldu ohi ziren eguzkia eta epeltasuna Mutiloa izeneko Goierriko herri txiki hartan. Begirik ezin bildu egon zen emakumea aurreko gauean, baina uda giroko goiz argitsu hartan esnatu zenean, egun ederra igaroko zuelako bihozkada izan zuen.

Laster batean jantzi zen, beti bezala berandu zihoalako. Giro ederra zegoen Liernin, eta neska taldea, Luisaren erruz gehienbat, berandu iritsi zen mezatara. Garrantzi handia ematen ez zioten ospakizun hura amaituta, eztarria bustitzera joan ziren jarri ohi zen postura, eta, aise egiten zuten bezala, mokoka ibili ziren bazkarira arte, baita otorduan ere. Aztalak ebakitzea gustatzen zitzaien gazte horien une gogokoena erromeria izan ohi zen; mutil eta neska elkartzen ziren, eguzkia Aizkorri barrenetik desagertu arte dantzan aritzeko.

Iluntze aldera, Luisa egarri zenez, ermita alboko iturrira joan zen. Bertan, amaren ahotsa iruditu zitzaiona entzun zuen, baina ez zion garrantzirik eman. Berriz ere dantza egitera zihoanean, amaren ahotsa zena entzun zuen bigarren aldiz. Une hartan, ingurura begiratu eta ama ikusi zuen apaizarekin hizketan eliz atarian bertan, baina nahiz eta belarria luzatu, ez zen ezer entzuteko gai. Ixil-ostuka gerturatu zen elkarrizketa entzutera, erreka esamesa baitzen Luisaren ama ez zela jainkoaren miresle sutsua. Entzuteko haina hurbildu zenean, harri-harri eginda geratu zen.

Amaitu zen Luisak hain gustuko zuen eguna, eta, berriz ere, urtebete luzez itxaron beharko zuen festa eder hartaz gozatzeko, ermitan entzundakoaz jakinaren gainean ez balego. Aurretik bazekien hurrengo urteko uztaillean Hondarribiko hotel batean zerbitzari lanetan arituko zela. Amak proposamena egin zionean, Luisari odolak burua hartu zion, kristorenak esanez, baina azken finean bazekien gura eta gura ez, hortik hilabetera tren batean egongo zela, Mutiloa

atzean utzita, Hondarribira bidean, 19 urtez bizi izan zen mundua alde batera utzita, bizi berri bati hasiera ematen.

Mutiloa, 1990eko azaroa

Udazken erdialdean ohikoa zen goiz goibel batean esnatu zen Luisa. Lainoak Mutiloa inguruko tontorrak estaltzen zituen astiro, garai gogorrek bizi izan dituen edonork gomutak ahazten dituen eran. Aski emango ez zuen irudipena zeukan ohe epel hartatik altxatu eta galtza bete lan zeukala ikusi zuenean. Behiei alha ematea edo eguerdian ikusi bat egitera hurbilduko ziren bi deabrutxo horiei jatekoa prestatzea ziren, mende batez bizitzera hurbiltzen ari zen amandrearen ustez, amaitezinak ziren eginbeharretako batzuk.

Duela pare bat urte Martin hil zenez gero, bizimodua ugari aldatu zen Eguzkitza baserrian, eta, Luisarengan, bereziki, itzala utzi zuen. Ia berrogeita hamar urtez euskarri eduki zuen gizonaren heriotzarekin barruan zeraman argi distiratsu eta alaia iraungi zen. Martin mutilotarrek begikoa zuten gizon apala eta onbera zen; halaber, gabezia nabaria zeukan, egoskorkeria. Luisak beti leporatzen zion baratzean aritzean ez zuela kremarik ematen, baina Martin zeharo muturtzen zen. Udako goiz argitsu batean, etxeko gizonaren aurpegia zurbil geratu zen, abuztuaren amaierarekin bere bizia ere amaituko zela adierazten zituen analisiak ikusi zituenean.

Une hartatik aurrera, Luisak bere lepora hartu zituen baserriko lanak eta senarraren zaintza. Honek, bizitzeko gogorik izango ez balu bezala, tratamendua baztertu eta bere azken bi hilabeteak baserritik atera gabe egin zituen, egun batetik bestera zeukan sugarra itzali eta indarra galduz. Hala ere, gau eta egun ibili zen bere grina zen zurgintzan, hura izan zen bere bizian zehar lagundu eta zoriontsu egin zuten pertsonen maitasuna erakusteko modu bakarra.

Lanez beteriko goiz zamatsu hartara itzuliz, iritsi ziren deabru-txiki haiek baserrira, igandero bezala bazkaltzera, begi argia egiten zioten amonaren arroz-esnea dastatzera, baita honekin egotera ere. Luisa bere onetan egoten zen une bakarretakoa zen, eta edozein motatako gutziak prestatzen zituen bere biloba bakarrentzat. Ohiko amonak bezala, umeak hezurretan zeudela leporatzen zien gurasoei, nahiz eta malezia urriarekin egin.

Otordua aurrera zihoan heinean, guztiei proposamen aparta iruditu zitzaiena bota zuen Mirenek, Luisa etxetik ugaritan ateratzen ez zela ikusita; hurrengo larunbatean Liernnira joango ziren bazkaltzera. Amonak baiezkua eman zuen, nahiz eta sendi guztiak konbentzitu behar izan. Hala ere, azalean kabituz ezin esnatu zen larunbatean, hain laketa zuen tokia urtebetez ez baitzuen bisitatu, ezta hango azpizun famatua dastatu ere.

Iritsi ziren Liernira, eta Juanekin, bertako sukaldari eta jabea, hizketan aritu zen denbora luzez. Hainbeste ospe zuen jatetxe honetako jabea gaztea zela iritsi zen Mutiloara, bere osaba artzain baten bidez. Hasieran belarrimotz deitu ohi zioten Luisak, Martinek, eta mutilotar gehienek, Gaztela-Mantxako herri txiki batetik baitzetorren, baina denboraren eta gizonaren eskuzabaltasunaren poderioz, mutilotarren begirunea eskuratu zuen.

Bermuta hartu eta bertako terraza argitsuan esertzean, Luisa bertako ermitari begira geratu zen, eta bat-batean, emakumearen izatearen hain barnean zeuden oroitzapenak, hala uste zuen behintzat Luisak, nola edo hala azaleratu ziren. Bihotza taupaka zeukan, eta arnasa bortizki

azkartu zitzaion. Behea joko zuela uste zuen, baina une hortan bere biloba maitea zapuztu eta builaka hasi zen. Hondorik gabeko amidegi batean behera erortzen hasi eta aingeru batek salbatzea bezala izan zen. Bazkaltzera abiatu ziren, lainoa pixkanaka Mutiloako tontorretatik aldentzen zihoan bitartean.

Hondarribi, 1935eko urtarrila

Abuztuan Hondarribira iritsi zenez geroztik, bizitza izugarri aldatu zitzaion Luisari. Apaizaren anaiaren hotelean lan egiten zuen zerbitzari lanetan, eta bere gazte-garaia bakarrik bizitzen ari zen, libre, giro biziko hiri batean. Lehen bi hilabeteak gogorrak egin zitzaizkion, baina atakatik onez atera zen, toki hartako buru zen Pabloren apaltasunak eta Mutilora bueltatu ezinak bere bizimodu berriaz ahalik eta gehien gozatzeko grina piztu baitzioten.

Hotel hark Espainiako jende boteretsuari ostatu ematen zion, inguruko ostaturik hoberenetakoa eskaintzen baitzuten. Udan bete-bete egiten zen, eta denbora hartan zerbitzariak galtza bete lan edukitzen zuten berakatzak baino finagoak ziren markes horien arropak garbitzen, jatekoa prestatzen eta besta hainbat eginbehar betetzen. Gehienei gogaigarria egiten zitzaion, hainbeste zuten pertsonak alboan ikusi eta alderaketa nabaria ikustea, diru mailan behintzat. Luisa, aldiz, pozaren pozez bizi zen, beste ore bateko opila zen; bazekien falta izatea zer zen, eta begi itxi-ireki batean bizimodua onera joateak guztiz pozten zuen neska mutilotarra.

Nahiz eta jende boteretsua hezibide onekoa izan, zarama ere sortzen zuten, eta gau batean hau botatzen ari zela, mutil bat ikusi zuen portuan; txairoa zen, gizon-gizona, eta Luisak, ez bat ez bi, gerturatu eta hitz egiteko ahalegina egin zuen. Geruratzean, gizonak ahoa ireki eta frantsesez hitz egiten hasi eta Luisa, hizkuntza honi buruz tutik ere ez zekiela, ahots estuan agur esan eta lotsaturik hotelera bueltatu zen.

Harrezkeroztik, Luisak zaborra hartu eta ihes egiten zuen gizon frantsesa ikusteko helburuarekin. Hiru aste izan ziren berriz ikusi zuen arte, eta orduan bai, lotsa alde batera utzi eta irmoki agurtu zuen. Gizonak baldarki hitz egiten zuen gazteleraz, Luisaren eran, baina begi-belarri aritu ziren elkar uler zezaten. Gizona Bou Nabarra izeneko itsasontziko eskifaia- kidea zen. Itsas-armada osatu ohi zuen itsasontzia zen, baina arazo batzuez geroztik merkatalgo lanak egin ohi zituen. Errepublikar sutsua zen, eta une hartan Espainiako II. Errepublika indarrean zegoenez, gogoko zuen frantziar lurraldeak utzi eta espainiarretan barneratzea.

Luisak gaizki ulertu ez bazuen, bi astero egon ohi zen Hondarribin, pare bat egunez. Frantziarra ez zegoenean, egonean egoten zen Luisa, haren etorreraren zain, eta Hondarribin egoten zenean, alde edo moldez bilatzen zuen denbora tarte bat berarekin egoteko. Egunean baino egunean maiteminduago zegoen frantziarraz, eta esne mamitan bizi zela iruditzen zitzaion.

Hondarribi, 1936ko uztailaren 18ko gaua:

Faxistak Marruekosetik Toledora iritsi eta azken hau hartzearekin batera Gerra Zibila hasi zen Espainian. Euskal Herrian, bitartean, erreketek lurraldeak hartuz joan ziren. Luisa gauerdian esnatu zuten bere adiskideek, erreketek zetoze eta Frantziara joan behar zutela esanez. Ordutik aurrera, ez zegoen inoren eskuko, eta zerbitzari guztiak itsasadarruntz abiatu ziren, armada frankistei iskin egin nahian.

PROSA

Itsasadarrera ailegatzean, hantxe ikusi zuen François, Bidasoa ibaia zeharkatzeko erabiliko zituzten batelak prestatzen. Gogoki besarkatu zuen, eta gizonak, begirada goibel baina zinezkoarekin, agur esan zion, betiko agian. Frantziar errepublikarrak bikotearen amodioaren arrazoi zen komertzio-itsasontzira itzuli beharra zeukan, itsasora jauzi egin eta oraingoan guduan parte hartzeko.

Zerua izar zegoen, Kantauriar kostako aire finak Luisaren begi bustiak laztantzen zituen batel batean zihoala Hendaiara bidean, bizi berri baten bila bigarren aldiz, baina oraingoan beldur zen, beldur ez zekielako etorkizunak zer opa zion, beldur ez zuelako Frantziarra gehiago ikusiko. Begiak itxi, eta Lierniko erromeriaz oroitu zen.